

Euskal hedabideek eta Gipuzkoako diputazioak mahaia eratu dute

HERRI EKIMENEN Euskal Hedabideetako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak mahaia eratu dute euskal hedabideen azterketaz arduratzeko. Foru Aldundiak maiatzean jaso zuen hedabideek sektoreaz egindako diagnostikoa eta orain bien arteko azterketa lanari ekin diote. Joan den asteko mahaian ondokoak elkartu ziren: hedabideen aldetik, Iban Arregi (Berria Taldea), Inazio Arregi (Tokikom), Maria Gil (Elhuyar) eta Xabier Letona (Argia);

Diputazioaren aldetik, Zigor Etxeburua euskara zuzendaria eta Haritz Salaberria diputatu nagusiaren kabinetea.

Mintzagai nagusiak lau izan ziren: diru-laguntzak eta hitzarmen politikak, euskarazko hedabideetara bideratutako publizitatea, euskal hedabideen elkarte eta hedabideen behatokia. Hedabideetako ordezkariak adierazi zuten baliabide gehiago behar dituztela proiektuak garatzeko, eta Foru Aldundiarekin diru-laguntza politiketatik hitzarmen politiketara iragateko egon daitzkeen aukerak aztertzea eskatu zuten. Agintarien esanetan, Diputa-

zioak badu sostengu ekonomikoa handitzeko borondatea, baina aitor-tzen dute aurrekontuaren aurreikuspenak estuak direla eta borondate hori gauza litekeen aurrerago ikusi behar dela.

Udazkenean berriz biltzekotan geratu dira. Ordurako, herri ekimeneko euskal hedabideen elkarte osatuta egongo da.

Azkenean sinestu egingo duzu

EUSKARAK ezertarako ez duela balio sinestera helduko zara. Benetan balio duen hizkuntza gaztelania edo frantsesa dela barneratuko duzu.

Juan Carlos Moreno Cabrera hizkuntzalari madrildarrak hitzaldia eskaini zuen joan den astean Zarautzen (Gipuzkoa). Inperialismo linguistikoaz luze aritu ondoren, ia bukaeran, antolatzaileetako batek bota zion galdera hau: “Zerk suntsitzen du hizkuntza?”. Ez zuen asko pentsatu erantzuna: “Norberak pentsatzea bere hizkuntzak ez diola ezertarako balio”. Eta hauxe gehitu zion: “Zure hizkuntza zanpatzen baldin badute eta ez bazaude ados, aurre egiten diozu besteari, baina zure hizkuntzak ez duela merezi uste baduzu, ez duzu inoren eta ezeren kontra egingo, hizkuntza galduko duzu eta kito”.

Ahotsak.com webgunean jasotako adinekoen hitzak etorri zaizkit gogora. Hizkuntzalariak ez bestela azaltzen dute *Transmisioaren etena* bideo zatian zer den hizkuntza gutxieste. Honakoak esaten dituzte: handiki, gehiago zenak egiten zuen gaztelaniaz / eleganteagoa zen erdara / amak alabarekin erdaraz egiten zuen eta baserritarra zen / gure buruak apainago egiteagatik / lotsagarria / analfabetoa / baserritarra / harrokeriaz erdaraz / konplejo ikaragarria / atzeratua / lotsa / kobardea / aldeanos / burros / boronos / aitak erdara jakin ez, semeak euskara jakin ez...

Zorionez, gauzak asko aldatu dira.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Gora diru beltzaren zuriketa!

Joan den astean, amnistia fiskalari heltzeko Espainiako Gobernuak emandako erraztasun gehiagoren berri izan dugu. Aberastasun handiak, bankariak eta enpresariak, eta oro har, paradisu fiskalak elikatzen dituztenak dira Espainiako Gobernuak onartu dituen lan, finantza eta gizarte erreformen onuradun; eta orain, amnistia fiskalaz ere gozatu ahal izango dute. Exekutiboak mimatzen dituen talde pribilegiatu horien parte direnek soilik saihestu dezakete –ingeniaritza finantzarioa eginez– kontrol fiskala, eta euren kapitalak paradisu fiskaletara bidaltzen dituzte. PPren Gobernuo senide eta lagunak dira, eta eskuina zein eskuin muturra ordezkaten dute.

Espainiako Gobernuak langileen, herritarren eta gizartearen kontrako neurriak hartu ditu, eta eskubide sozialak eta laboralak murriztu, patronalaren mesedetan. Bitartean, bankuei milaka milioi euro injeztatu dizkie, eta orain, amnistia fiskala atera du zorrotik. Amnistiak aitortu gabeko errentak azaleratuko ditu %10eko karga baino askoz gutxiagorekin. Zergadunek azaroaren 30a arte dute euren egoera erregularizatzeko eta bermea dute ez dituztela zigortuko, ez auzi penal edo fiskaletan sartuko. Gisa horretan, nahikoa izango da kontu bat irekitzea esku-diru beltza erregularizatzeko. Zergadunek funtsak bankuko kontu batean sartu beharko dituzte “ezkutuko izaera izango duen zerga-aitorpen berezia” aurkeztu aurretik. Ez da inongo neurririk hartuko funts horien jatorria kontrolatzeko, kapitalen zuriketari ateak irekiz, diru beltzari, alegia. Beraz, Espainiako Gobernuari berdin zaizkio armen trafikoa, drogena, emakumeena... Trafikanteek eta narkotrafikanteek, aberastasun handiek, enpresariak, bankariak... Guztiak “salbatu” ahal izango dituzte diru beltzak. Lasai asko. Eta nomina duenari ezta hurrik eman ere. Soldatekin zergak ordain ditzatela. Gora kapitalen zuriketa! Gora diru beltza!

Juan Mari Arregi

